

DANTZUT

Dantzut 1995ean sortu zen Julio Kageta taldearen errautsetatik. Julio Kagetako Juanmi Bravo, Iker Saenz de Zaitegi, Carlos Balseiro eta Markos Gimenorekin batera Esther Astarloa sartu zen talde berrira.

Lehendabiziko lana "Dantzut s.b." izeneko kasetea izan zen, sei kanturekin, 1996an. Autoekoiztua hasieratik bukaerara, Carlos Balseiro arduratu zen grabaketaz Lorentzo Records estudioan, Josu Monje eta Aitor Ariñorekin batera. Diseinu lana Markosek eta Estherrek burutu zuten.

1998an, IZ disketxearekin "Nahiezkero" diskoa atera zuen taldeak, Julio Kagetan ibilitako Patxi Linares soinu teknikari gisa.

"Nahiezkero" laneko "Territorio librea" kantua Joseba Sarrionandiaren poema musikatuena "Hau da ene ondasun guztia" bilduman ere agertzen da.

Taldeak 1999ean desegin zen, eta Esther gabe, beste taldekideek Puto Amoak Matematiketan taldea sortu zuten.

Dantzut izan ziren:

- Esther Astarloa: Ahotsa.
- Juanmi Bravo: Bateria.
- Iker Saenz de Zaitegi: Kitarra.
- Markos Gimeno: Baxua.
- Carlos Balseiro: Soinu teknikaria.